

## BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

### 2886

*AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, euskal txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren eta etxeko ekipamenduaren azpi-sektoreei eusteko laguntza-programarako deialdia egiten duena.*

EAEko merkataritza-sektoreak garrantzi sozioekonomikoa du EAEko ekonomian eta hori zifretan jartzen da agerian, bai barne-produktu gordinean duen garrantzi espezifikoaren bidez (% 10,67), bai enplegua sortzeko duen gaitasunarengatik; 2021. urtearen amaieran erregistratutako 127.324 kide zeuden (txikizkako merkataritza-sektoreari lotutako 73.940 kidetza) eta 36.679 saltegi: 23.103 txikizkari (% 63), 10.349 handizkari (% 28) eta 3.227 automozio-sektorean (% 9).

Mikroenpresen eta enpresa txikien sarean oinarritutako enpresa-egiturak (merkataritza-enpresen % 72,23 inguruk 2 langile baino gutxiago dituzte, eta % 90,89 inguruk 5 langile baino gutxiagoko plantillak dituzte) eta autonomoen kolektibo garrantzitsuan oinarritutakoak (kolektibo hori txikizkako merkataritza-sektorean sortutako enpleguaren % 34 da).

COVID-19aren krisi sanitarioak merkataritzaren sektoreari egin zion kalte bereziki. Eustatek argitaratutako datuen arabera, merkataritza-azpi-sektoreen arabera inpaktua desberdina izan arren, txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak % 4,9ko beherakada metatua izan zuen 2020an, aurreko urtearen aldean, lan-egutegia homogeneoa eta prezio konstanteak aplikatuta. 2021eko balantzean, txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,6 igo dira aurreko urtearekin alderatuta, eta, beraz, nolabaiteko suspertzea izan da, baina, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz une honetan dagoen egoera belikoa dela-eta, merkataritza-sektoreak babesza eta bultzada behar ditu jarduera berraktibatzeke eta merkataritza-sektorea biziberritzeko.

Egoera horren eraginez, Espainiako Gobernuak presako neurriak hartu ditu Ukrainako gerraren ondorioak arintzeko, kolektibo ahulenei eta ekoizpen-sektore kaltetuenei laguntzeko, hornidurak bermatzeko eta erregaien eta elektrizitatearen prezioak jaisteko. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Estatuko planaren bidez, baliabide publikoetatik 16.000 milioi euro mobilizatzeko asmoa du.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, 200 milioi inguruko balioa duten neurri osagarri batzuk onartu ditu, «erreskate sozialeko funts» batean eta «erreskate ekonomikoko funts» batean banatuta, ekonomia, enplegua, industria-sarea, familiak, pertsonak eta sektore ahulenak babesteko; horien artean, merkataritza-sektorea dago. «Merkataritza-sektorerako laguntza osagarriak» bideratu dira sektore horretara, 20 milioi euroko baliokoak, kontsumoa sustatzeko programa baten eta txikizkako merkataritza-sektorea babesteko programa baten bidez; izan ere, EIN erakundearen txikizkako merkataritzako indizearen (TMI) arabera, 2022ko otsailean, EAEko txikizkako merkataritzako prezio konstanteko salmentak, gainerako autonomia-erkidegoekin eta hiri autonomoekin alderatuta, jaitsiera handiena izan dutenetako bat da: Gaztela-Mantxa (-% 1,3), Euskal Autonomia Erkidegoa (-% 1,1) eta Nafarroako Foru Komunitatea (-% 0,6). Baliabide ekonomiko horiek Gobernu Kontseiluaren 2022ko apirilaren 12ko Akordioan onartu ziren. Akordio horren bidez, aurrekontu-neurriak hartu ziren Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei dagokienez.

Egungo egoera belikoa, 2022ko bigarren hiruhileko honetan, salmenten eta/edo eskaeren bolumena txikitzea eta hornidura-katean etenaldiak izatea eragiten ari da. Horien ondorioz,

likidezia-arazoak eta galerak sortzen ari dira, eta horiek, kasu askotan, txikizkako merkataritza-sektorearen bideragarritasuna arriskuan jartzen ari dira.

Hala ere, azpimarratu behar da txikizkako merkataritza-sektorean askotariko jarduerak daudela (pertsonaren ekipamendua, etxearen ekipamendua, janariak, eta abar), eta azpisektoreek zeinek bere egoera duela.

Azken hilabete hauetan, kostuak handitu direnez, bai logistikoak (etxeko ekipamenduan % 83,08), bai lehengaienak (etxeko ekipamenduan % 98,5), salmentetan geldialdi bat gertatu da, eta, horren eraginez, ondasunen stockak pilatzen ari dira, adibidez: ekipamendu pertsonalekoak (ehungintza eta oinetakoak), % 68,97, eta etxeko ekipamendukoak, % 48. Horrez gain, hornikuntza falta dago, batez ere arropa, oinetako eta etxetresna elektrikoaren eskaeretan. Geldialdi hori prezioen igoerari egozten zaio, baina baita gastatzeko beldurrari, gerrari berari eta etorkizuna ziurgabea izateari ere, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzaren lehenetsuna gerraren ondorioak mugatzea bada ere, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak kontuan hartu behar ditu krisi global hori txikizkako merkataritzaren sektorean izaten ari den ondorioak eta eragina ere, sektore hori enplegu- eta ongizate-iturria baita euskal gizarte osoarentzat.

Egoera honetan, arlo ekonomikoari dagokionez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lehenetsuna da EAEko txikizkako merkataritza-sektorea babestea eta laguntzea, batez ere azpisektore kaltetuenei, inpaktua minimizatzeko eta, jarduera lehenbailehen suspertu dadin.

Hori horrela, likidezia eta kreditua bermatzeko, enplegua babesteko, zergen alorreko edo alokairura bideratutako neurrien eta ildo horretan garatzen diren beste hainbaten osagarri gisa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak beharrezkotzat jotzen du itzuli beharrik gabeko dirulaguntza-lerro bat ezartzea, EAEko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren eta etxeakoaren sektoreari laguntzeko jasaten ari den zailtasunen aurrean.

Laguntza-programa hau premiazkoa denez, prozedura arina behar du. Ezin da bestela izan gaur egungo egoeran, eta, era berean, aurreikusitako eskabide kopuru handia ahalik eta lasterren izapidetzeko aukera eman behar du. Gainera, laguntzak kudeatzeko, komenigarritzat jo da gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak aplikatzea ahalbidetuko duten beharrezko kontrolak errespetatzea. Prozeduraren ikuspuntutik eta administrazio-izapideak errazteko, agindu honetan erabaki da espedienteen izapidetze elektronikoa egingo dela.

Laguntza honen oinarritzko helburua honako hau da: EAEko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren eta etxeakoaren azpisektoreak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak babesteko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko oinarriak ezartzea, gaur egungo egoera belikoaren inpaktua minimizatzeko eta jarduerari ahalik eta lasterren berrekitea ahalbidetzeko.

Agindu hau Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Dirulaguntzen 2022rako Plan Estrategikoaren 2. aldaketan sartzen da. Aldaketa hori Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean ezarritako aurrekontu-kreditu nahikoa du.

Hori dela-eta, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 15. artikulua, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko

Legearen testu bateginaren 51.2 artikulua araber (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua), Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari ematen dizkioten esku-menak baliatuz, honako hau

## EBAZTEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua.– Laguntza-deialdiaren xedea.

1.– Laguntzen agindu honen xedea da oinarriak ezartzea EAeko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren eta etxeakoaren azpisektoreak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta mikroenpresak eta enpresa txikiak babes-teko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko, eta, horrela, jarduerari ahalik eta lasterren berrekitea ahalbidetzea.

2.– Xede horrekin bat etorritik, laguntza-lerro honen helburua da EAeko txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren eta etxeakoaren azpisektoreetako norberaren konturako langileen edo langile autonomoen, ondasun-erkidegoen, sozietate zibilen, mikroenpresen eta enpresa txikien zuzeneko galera ekonomikoak apaltzea; izan ere, egungo egoera belikoak eragindako zailtasun-egoerak nabarmen kaltetu du haien guztien merkataritza-jarduera.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 15.000.000,00 eurokoak dira guztira, eta 2022ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkie.

2.– Aurreko atalean ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortuko balitz, laguntza berriak ematea etengo litzateke, eta ebatzi gabe dauden eskabideak ezetsi egingo lirateke. Hori dela eta, Merkataritzako zuzendariak, organo kudeatzailea den aldetik, kreditua agortu dela jakinaraziko du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den ebazpen baten bidez.

##### 3. artikulua.– Pertsona eta entitate onuradunak.

1.– Agindu honen I. eranskinean zerrendatutako jarduerak egiten dituzten norberaren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, mikroenpresek eta enpresa txikiek eskuratu ahal izango dituzte agindu honetan bildutako laguntzak, baldin eta haien saltegia Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badago.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako enpresek Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte. Erregelamendu horren bidez egiaztatzen da laguntza-kategoria jakin batzuk bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta.

3.– Artikulu honetan adierazitako entitateek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta euren jarduera agindu honetako I. eranskinean adierazitako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epi-grafeen barruan sartzen bada.

4.– Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, haietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako eskakizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, elkarrearen ordezkari bat izendatu

beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen.

5.– Pertsona eta entitate eskatzaileek eskakizun hauek bete beharko dituzte 2022ko otsailaren 24a baino lehen, hau da, Ukrainako gerra hasi baino lehen:

- a) Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea eta laguntzaren xede den saltegia bertan egotea.
- b) Agindu honen I. eranskinean aipatzen diren jardueretako batean aritzea.
- c) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.
- d) Entitate eskatzaileak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko du.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak automatikoki egiaztatuko du puntu honetako b) eta d) apartatuetan ezarritako eskakizunak betetzen ote diren, datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, aurreko apartatuetan identifikatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

Gainerako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak agiriak aurkeztu beharko ditu, II. eranskinean zehaztutakoaren arabera.

6.– Artikulu honetan adierazitako eskakizunei nahitaez eutsi beharko zaie, gutxienez, laguntza-eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrerako sei hilabeteetan.

Merkataritza Zuzendaritzak egiaztatuko du mantendu egiten dela onuradunen jarduera.

7.– Aurreko apartatuetan aurreikusten diren baldintzez gain, pertsona eta entitate onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Egunean izatea Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- b) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
- c) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen lege-debekurik sexu-diskriminazioagatik sortutakoak barne (Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoari jarraikiz).
- d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.
- e) Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan aurreikusitako kasuan ez egotea.
- f) Laguntzak berreskuratzeko agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Era berean, deialdi honen organo kudeatzaileak dirulaguntzen eskatzaileen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz. Modu arrazoituan aurka egiten badu (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak, 50.3 artikuluan xedatutakoaren arabera), orduan aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

4. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatu beharko dira.

2.– Pertsona edo entitate onuradunari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa eskabidearen xede den saltegian 2022ko otsailaren 24a baino lehen alta-egoeran zeuden langileen kopuruaren arabera ezartzen da, honako taula honen arabera:

- 1 eta 9 langile bitarteko saltegiak: 2.000 euro.
- 10 langileko edo gehiagoko saltegiak: 3.000 euro.

Kasu guztietan, langile guztien zenbaketan autonomoak ez ezik soldatapekoak ere sartuko dira, kontuan hartu gabe lanaldi osoa edo partziala duten, jardunean dauden, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean dauden, lan-harremana etenda duten edo jarduera utzita dauden.

Langile berak saltegi bakarrera egon ahalko du atxikita.

## II. KAPITULUA

### PROZEDURA

5. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Merkataritzako Zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

6. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta horiek aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo lehenengo egun balioduneko goizeko bederatzietan hasiko da, eta hura argitaratzen denetik 30 egun naturalera amaituko.

2.– Saltegi bakoitzeko eskabide bakar bat aurkeztu beharko da.

3.– Entitate eskatzaileek eskabidea eta xede horretarako aurreikusitako gainerako inprimakiak bete beharko dituzte; besteak beste:

1) Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruzkoa:

a) Eskatzaileari buruzko datuak, langile autonomoa, mikroenpresa, enpresa txikia, edo nor-tasun juridikorik gabeko taldea (ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila) den zehaztuta; kasu horretan, kide bakoitzaren datu pertsonalak identifikatu beharko dira, baita zer partaidetza-ehunekoa duen ere.

Horrez gain, berriaz zehaztu beharko da dirulaguntza-eskabidearen xede den saltegiaren kokapena eta izena, baita eskabidean aipatzen den saltegia alta emanda dagoen ekonomia-jardueren gaineko zergaren jarduera nagusiaren epigrafea ere.

b) Entitate onuradun izateko deialdi honen 3. artikulua arabera, ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

c) Pertsona edo entitatea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.

d) Betetzen dituela beharrezkoak diren baldintzak mikroenpresa edo enpresa txiki gisa hartua izateko:

1) 50 langile baino gutxiago izatea, eta gehienez 10 milioi euroko negozio-bolumena edukitzea deialdi honen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, edo gehienez 10 milioi eurokoa izatea urteko balantzea.

2) 50 langile edo gehiago, 10 milioi eurotik gorako negozio-bolumena edo 10 milioi euro baino gehiagoko urteko balantzea duen enpresa batek haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea.

e) Pertsona edo entitate eskatzailearen 2022ko otsailaren 24a baino lehenagoko plantilla osoari buruzko datuak. Informazio hori honela banakatuko da: gizon eta emakume kopurua eta langile bakoitzaren izen-abizenak, NANA eta gizarte-segurantzako zenbakia.

Informazio hori entitate juridiko eskatzaileak aurkeztutako «Kotizazio-kontuaren kodeari dagokion lan-bizitzaren txostena» izeneko dokumentuaren bidez eta, langile autonomoen kasuan, «Lan-bizitzaren txostena» izeneko dokumentuaren bidez egiaztatuko da.

f) Laguntzaren xede den saltegia Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea eta 2022ko otsailaren 24a baino lehenagotik martxan egotea.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak automatikoki egiaztatuko du informazio hori, datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, bere kabuz aurkeztu beharko ditu egiaztapena egiteko behar diren egiaztapenak.

g) Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo bidezko zehapen administratibo edo penalik, ezta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

h) Ez duela inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek ez haren organismo autonomoek emandakorik, izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasitakorik. Hala bada, zer prozedura den edo diren adierazi beharko da.

2) Administrazioak laguntza ordain dezan, ematen bada, entitate eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarren Erregistroan erregistratuta egon beharko du, eta alta eman edo banku-datuak aldatu beharko ditu, baldin eta datu horiek ez badaude aipatutako erregistroan jasota. Modu telematikoan egin beharko du, <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak-argibideak> helbidean dauden jarraibideen arabera.

Nolanahi ere, Hirugarren Erregistroko datuen alta edo aldaketa eskatzaileak berak edo haren ordezkari batek egin beharko du bitarteko elektronikoen bidez, baldin eta ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>) eskuragarri dagoen ahalordeen erregistro elektronikoa alta emanda badago.

Bankuaren datu horiek aktibo mantenduko dira, hala badagokio, laguntza ordaindu arte.

4.– Eskabideak bitarteko elektronikoz egingo dira, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1112902> helbidearen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluari kalterik egin gabe.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Hirugarrenen altaren edo aldaketaren kasuan, artikuluko honetako 3.2 lerrokadan agertzen den helbidea baliatu beharko da.

Elektronikoki izapidetutako eskabideen kasuan, erregistro elektronikoa ageri den data hartuko da aurkezpen-datatzat.

Eskabidea egin ondorengo izapideak: jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>)

Egoitza elektronikoa horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, baita eskabide-eredua ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1112902>. Era berean, eskabide-eredua II. eranskinean dago.

Eskabidearekin batera, entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo entitatearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

Ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, haren izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

- Ordezkarien Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>), edo honen bidez:
- «Borondatzeko legezko ordezkariaren egilesteko inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza-ematea>), behar bezala formalizatua, eta eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Pertsona juridikoek, gainera, ordezkariaren ahalordearen kopia erantsi beharko dute, edo legezko beste edozein dokumentu, ahalorde-emailea entitate ordezkariaren legezko ordezkari gisa legitimatzen duena.

Ordezkaritza (fisikoa edo juridikoa) identifikatzeko bitarteko elektronikoa onartu bat eduki beharko du.

5.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabileraren Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du espresuki eta formalki onartzen direla deialdi honetako oinarriak.

7. artikulua.– Eskabidea zuzentzea.

1.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritzako Zuzendaritzak antzematen badu aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasunik ezen bat dagoela, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsegitea zuzentzeko edo eskatzen zaizkion agiriak aurkezteko. Horrez gain, adieraziko zaio, hori

egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan aurreikusi moduan eman beharko den ebazpenaren bidez.

2.– Jakinarazpenak eta zuzenketak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko noiz eta zer ordutan jarri den interesdunaren eskuragarri jakinarazitako egintzaren edukia. Baldin badakigu jakinarazpena iritsi zaiola baina, hamar egun natural igarota, ez baldin bada edukira sartu, ulertuko dugu jakinarazpenari uko egin diola. Izapidea egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, non eta ez den garbi geratzen, ofizios edo interesdunak eskaturik, teknikoki ezinezkoa izan zaiola edukira sartzea.

8. artikulua.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzea.

1.– Dirulaguntzen eskaerak ebatzi egingo dira, baldin eta zuzenketa eskatu behar ez bada, erregistro elektronikoen eguna eta ordua erreferentziazat hartuta. Zuzenketa egin behar bada, eskabidea balio osoz osatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziazat, eta, nolahi ere, deialdirako kreditu erabilgarriaren mugara arte eta kreditu xedatuaren arabera.

2.– Onuradun izateko galdatutako eskakizunak betetzen direla kontuan hartuta emango dira, eta dokumentazioa bete ondoren; horrez gain, ez da beharrezkoa izango eskabideen arteko alde-raketarik egitea, ezta eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzea ere.

3.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzako langileei dagokie aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea, zuzendaritza hori baita laguntzen programa kudeatzen duen organoa. Eskabide horiek egoki ulertu eta ebaluatzeko, beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio edo informazio osagarria eskatu ahal izango dute edozein unetan.

9. artikulua.– Prozeduraren ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura eta errekursoak.

1.– Merkataritzako zuzendariak ebatziko ditu eskabideak, gehenez ere 3 hilabeteko epean, eskabidea (formulazio eskabidea zein zuzenketa eskabidea) osatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta ebazpen arrazoitua emango du aurkeztutako dirulaguntza-eskabide bakoitzari dagokionez.

2.– Ebazpenak banan-banan jakinaraziko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak; hori guztia, diruz lagundutako pertsona eta entitate onuradunen eta emandako zenbatekoaren zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea alde batera utzi gabe.

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>)

Sei hilabete igarotzen badira ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, pertsona edo entitate interesdunak ezetsizat jo ahal izango du bere uzia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berriazko ebazpena emateko duen betebeharra.

3.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako jakinarazpenaren argitalpenaren abi-suak bidaliko dizkie interesdunei, eskabide-inprimakian adierazitako telefono mugikorretara eta



helbide elektronikoetara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek ez dute izango inola ere jakinarazpen-baliorik.

4.– Ebazpen horrek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Turismo eta Kontsumoko sailburuordeari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, 11.c) artikuluan adierazitako epea igarotakoan, baldin eta berariaz uko egiten bazaio.

2.– Ez da inolako ordainketarik egingo erakunde onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzulketa-ebazpen baten ondorioz zordun bada.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura amaitzearen baldintzapean geratuko da ordainketa.

11. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Pertsona eta entitate onuradunen betebeharrak izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 eta 46. artikuluetan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Jardueran alta emanda egotea, eta 3.3 artikuluan adierazitako kolektibo onuradunetako baten barruan egotea gutxienez ondoz ondoko sei hilabetez, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Jardueran gutxienez sei hilabetez aritzea jarraian, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamar eguneko epean onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

d) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan dihardutela eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz.

e) Enplegu-mailari eustea laguntza eman eta 6 hilabetez.

12. artikulua.– Uko egitea.

1.– Merkataritzako zuzendariak, ebazpen baten bidez, berariaz onartuko du uko-egitea, eta, ordainketaren bat egin bada, itzultzeko betebeharra dagoela adieraziko du, sortutako berandutze-interesak barne; halaber, amaitutzat emango du prozedura, delako entitate onuradun horri dagokionez.

2.– Ez da onartuko erakunde interesdunari deialdiaren esparruan hasitako prozedura baten berri eman ondoren (ez-betetzea adierazteko prozedura bat edo zehapen-prozedura bat) aurkeztutako ukoa. Prozedura horrek aurrera jarraituko du ebazpena eman arte.

### 13. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira. Horretarako, Merkataritzako zuzendariak aldatzeko ebazpena emango du, zeinetan emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko baitira, alderdi interesdunei entzun ondoren.

2.– Baldintzak aldatzearen ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da, sortutako berandutze-interes eta guzti.

### 14. artikulua.– Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honen babespean lortutako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik edo entitate pribatuetatik jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

2.– Agindu honetan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua Europar Batasunaren laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EE) Erregelamenduan ezarritako «minimis» arauak, bai eta Europar Batasunaren esparruan horretarako emandako beste jarraibide edo xedapen batzuk ere.

### 15. artikulua.– Ikuskapena.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egoki irizitako ikuskaritza eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, dirulaguntza-deialdi honetako baldintzak betetzen diren hobeto ezagutzeko, eta entitate onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute, hargatik eragotzi gabe Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dezaketen kontrola, betiere beren eginkizunak egikaritzuz, jasotako laguntzei dagokienez.

### 16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Entitate onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean badago, Merkataritzako zuzendariak, ez-betetzei buruzko espediente egin ondoren –non entitate interesdunari entzungo zaion– adieraziko du, ebazpen bidez, erabat edo zati batean galdu duela dirulaguntza eskuratzeko eskubidea, eta, hala badagokio, aginduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzul diezazkiola jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, ez-betetzearen graduarekiko proportzioan, bai eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak ere, hala baitiote Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta, diru-itzulketa partzialari dagokionez, 38/2003 Legearen 37. artikuluan zehazten duenaren arabera. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira, dagozkien legeko ondorioetarako.

2.– Ez-betetzearen espediente hori elektronikoki izapidetuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), salbu eta interesdunak legitimoki beste bide bat eskatzen badu.

### 17. artikulua.– Datu pertsonalak.

1.– Eskatzaileen datu pertsonalak «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira, <https://www.euskadi.eus/rgpd/1112902> helbidean jasotakoaren arabera.

2.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritza da dirulaguntza-programa honen izapideetatik eratorritako datu pertsonalak tratatzeaz arduratzen den organoa.

3.– Datu pertsonalak honako arau hauen arabera tratatuko dira: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

18. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko araubide juridikoa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudian eta hura garatzen duen erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) aurreikusitako dirulaguntzen araubide juridikoa aplikatu behar zaio laguntza-programa honi. Horrek ez du galaraziko hauetan xedatutakoa: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua (testu bategin hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araubide orokorra arautzen duen eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 21a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

## I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN EKONOMIA-JARDUEREN  
GAINEKO ZERGAREN EPIGRAFEAK

651. taldea. Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

651.1 epigrafea.– Etxerako ehungintza-gaien eta jantzi-gaien, alfonbren nahiz antzekoen eta tapizgintza-gaien txikizkako merkataritza.

651.2 epigrafea.– Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza.

651.3 epigrafea.– Lentzeriaren eta kortseteriaren txikizkako merkataritza.

651.4 epigrafea.– Mertzeriako eta paketeriako gaien txikizkako merkataritza.

651.5 epigrafea.– Jantzi berezien txikizkako merkataritza.

651.6 epigrafea.– Zapaten, larruzko produktuen eta imitaziozkoen nahiz ordezeko ekoizkinen, gerrikoen, diru-zorroen, poltsen, maleten eta, oro har, bidaiatzeko gauzen txikizkako merkataritza.

651.7 epigrafea.– Larrukigintzako jantzien txikizkako merkataritza.

652. taldea. Drogeriako eta garbiketako gaien txikizkako merkataritza; mota guztietako lurrinena eta kosmetikoena; eta, oro har, kimikako ekoizkinena.

652.2 epigrafea.– Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 epigrafea.– Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienerako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

653. taldea. Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

653.1 epigrafea.– Altzarien txikizkako merkataritza (bulegokoak ezik).

653.2 epigrafea.– Material eta aparatu elektrikoek, elektronikoen eta etxetresna elektrikoek, argindarraz besteko energia mota batez eragiten diren etxeko bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.

653.3 epigrafea.– Etxeko hornidurarako, burdindegiko, apaindurako, oparitarako edo erakartzeko gaien txikizkako merkataritza (erakartzeko gaiak, imitaziozko bitxiak eta etxetresna elektriko txikiak barne).

653.4 epigrafea.– Eraikuntzako materialen eta saneamenduko gaien eta altzarien txikizkako merkataritza.

653.5 epigrafea.– Ateen, leihoen eta pertsianen, molduren eta markoen, oholtzen eta parket-mosaikoen, saski- eta kortxo-gaien txikizkako merkataritza.

653.6 epigrafea.– Brikolajeko gaien txikizkako merkataritza.

653.9 epigrafea.— Bestelako ataletan bildu ez diren etxeko ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza.

97. taldea. Zerbitzu pertsonalak.

975. epigrafea.— Markogintza-zerbitzuak.

2022ko ekainaren 24a, ostirala

## II. ERANSKINA

## EAE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO EKIPAMENDU PERTSONALAREN ETA ETXEKO EKIPAMENDUAREN AZPISEKTOREEI SOSTENGUA EMATEKO LAGUNTZAK

(Kodea: 1112902)

## ESKABIDE-EREDUA

## 1.– Eskatzailea

Eskatzailea:	
Ordezkarria:	
Instrukzio-organo honi zuzendua: Merkataritza Zuzendaritza	

## 2.– Eskatzailearen datuak

Eskatzailea	
Identifikazio-dokumentua	
Zenbakia	
Pertsona juridikoa bada:	
Entitatearen izena	
Pertsona fisikoa bada:	
Izen-abizenak	
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea <input type="checkbox"/>
Nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan (ondasun-erkidegoak edo sozietate zibila)	
Entitatearen izena:	

Ordezkarria	
Identifikazio-dokumentua	
Zenbakia	
Pertsona juridikoa bada:	
Entitatearen izena	
Pertsona fisikoa bada:	
Izen-abizenak	
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea <input type="checkbox"/>

2022ko ekainaren 24a, ostirala

## 3.– Eskatzailearen egoitza soziala

Entitate eskatzailearen egoitza soziala		
Helbidea (kalea):		
Zenbakia	Solairua	Aldea
Udalerrria		PK
Lurraldea		

Legezko ordezkaria		
Identifikazio-dokumentua		
Zenbakia		
Izen-abizenak		
Sexua	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>

Harremanetarako pertsona		
Izen-abizenak		
Sexua	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>
Helbide elektronikoa		
Telefono mugikorra		

## 4.– Jakinarazpenetarako datuak

Jakinarazpenen hartzailea:		
Espedientea izapidetzen ari den bitartean, Administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:		
Izen-abizenak		
Harremanetarako hizkuntza	Euskara <input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako kanala	
Telematikoa: «Nire karpeta» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen postontzira bidaliko dira jakinarazpenak eta komunikazioak. Bertan sartzeko, identifikazio modu elektronikoa bat behar da.	
Hamar egun natural igaro badira eta ez bazara sartu jakinarazpen elektronikoa batean, ulertuko da baztertu egin duzula; izapidea, beraz, egintzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.	
Jakinarazpenen eta komunikazioen abisuak jasotzeko datuak:	
Helbide elektronikoa	
Telefono mugikorra	
Datuak erabiltzeko baimena	
<input type="checkbox"/>	Komunikazio eta abisuetarako nire datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan erabiltzea nahi dut.
<input type="checkbox"/>	Komunikazioetarako eta abisuetarako nire datuak esklusiboki espediente hau kudeatzeko erabiltzea nahi dut.

## 5.– Oinarrizko datuak

Laguntza eskatu duen entitatearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden					
Araba	<input type="checkbox"/>	Bizkaia	<input type="checkbox"/>	Gipuzkoa	<input type="checkbox"/>

Hirugarrenen datuen alta
Pertsona edo entitate eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan erregistratuta egon beharko du laguntza ordaintzeko, halakorik emanez gero. Horretarako, alta eman beharko du edo aurretik gehitutako informazioa aldatu beharko du telematikoki, <a href="https://www.euskadi.eus/hirugarrenak-argibideak">https://www.euskadi.eus/hirugarrenak-argibideak</a> helbidean jasotako jarraibideen arabera.

Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa
Eskabidean jasotako datu pertsonalak «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.
<p><b>Arduraduna</b></p> <p>Merkataritza Zuzendaritza, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.</p>
<p><b>Xedea</b></p> <p>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak iragartzen dituen merkataritzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.</p>
<p><b>Legitimazioa:</b></p> <p>Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko.</p>
<p><b>Hartzaileak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.</li> <li>– Toki-administrazioko beste organo batzuk.</li> <li>– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.</li> <li>– Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberak.</li> <li>– Herritarrek (onartzeko/ukatzeko ebazpena buletinean argitaratzea)</li> </ul>
<p><b>Eskubideak</b></p> <p>Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.</p>
<p><b>Informazio gehigarria</b></p> <p>Gure web-orrian kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia (<a href="https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/076200-cap2-eu.shtml">https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/076200-cap2-eu.shtml</a>)</p>



2022ko ekainaren 24a, ostirala

## Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra  
([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)).

## Entitate eskatzailearen tipologia

Laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte beren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, mikroenpresek eta enpresa txikiak baldin eta jarduera eta epigrafe hauetan alta emanda badaude ekonomia-jardueren gaineko zergan:

- 651.1 epigrafea.– Etxerako ehungintza-gaien eta jantzi-gaien, alfonbren nahiz antzekoen eta tapizgintza-gaien txikizkako merkataritza.
- 651.2 epigrafea.– Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza.
- 651.3 epigrafea.– Lentzeriaren eta kortseteriaren txikizkako merkataritza.
- 651.4 epigrafea.– Mertzeriako eta paketeriako gaien txikizkako merkataritza.
- 651.5 epigrafea.– Jantzi berezien txikizkako merkataritza.
- 651.6 epigrafea.– Zapaten, larruzko produktuen eta imitaziozkoen nahiz ordezeko ekoizkinen, gerrikoen, diru-zorroren, poltsen, maleten eta, oro har, bidaiatzeko gauzen txikizkako merkataritza.
- 651.7 epigrafea.– Larrukigintzako jantzien txikizkako merkataritza.
- 652.2 epigrafea.– Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.
- 652.3 epigrafea.– Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienerako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.
- 653.1 epigrafea.– Altzarien txikizkako merkataritza (bulegokoak ezik).
- 653.2 epigrafea.– Material eta aparatu elektrikoek, elektronikoen eta etxetresna elektrikoek, argindarraz besteko energia mota batez eragiten diren etxeko bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.
- 653.3 epigrafea.– Etxeko hornidurarako, burdingogiko, apaindurako, oparitarako edo erakartzeko gaien txikizkako merkataritza (erakartzeko gaiak, imitaziozko bitxiak eta etxetresna elektriko txikiak barne).
- 653.4 epigrafea.– Eraikuntzako materialen eta saneamenduko gaien eta altzarien txikizkako merkataritza.
- 653.5 epigrafea.– Ateen, leihoen eta pertsianen, molduren eta markoen, oholtzen eta parket-mosaikoen, saski- eta kortxo-gaien txikizkako merkataritza.
- 653.6 epigrafea.– Brikolajeko gaien txikizkako merkataritza.
- 653.9 epigrafea.– Bestelako ataletan bildu ez diren etxeko ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza.
- 975. epigrafea.– Markogintza-zerbitzuak.

2022ko ekainaren 24a, ostirala

Entitate eskatzaileak bete beharreko eskakizunak
<p>Pertsona edo entitate eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon beharko du.</p> <p>1.– Pertsona eta entitate eskatzaileek eskakizun hauek bete beharko dituzte 2022ko otsailaren 24a baino lehen:</p> <p>a) Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea eta laguntzaren xede den saltegia bertan egotea.</p> <p>b) Agindu honen I. eranskinean aipatzen diren jardueretako batean aritzea.</p> <p>c) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.</p> <p>d) Entitate eskatzaileak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko du.</p> <p>2.– Agindu honen 3. artikuluan jasotako betekizunei nahitaez eutsi beharko zaie, gutxienez, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrerako sei hilabeteetan.</p> <p>3.– Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, haietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte ezarritako eskakizunak eta baldintzak.</p> <p>4.– Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.</p> <p>5.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betetzen dela agindu honen 3. artikuluko 5.b) eta 5.d) apartatuetan eta 7.a) eta 7.b) apartatuetan ezarritakoa, horretarako gaitutako datu-bitartekaritzako plataformei edo bestelako sistema elektronikoei kontsulta eginez. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, aurreko apartatuetan identifikatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.</p>

Erantzukizunpeko adierazpena						
A) Laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea:						
Autonomoa	<input type="checkbox"/>	Mikroenpresa	<input type="checkbox"/>			
Enpresa txikia	<input type="checkbox"/>	Nortasun juridikorik gabeko elkarteak: Ondasun-erkidegoa		<input type="checkbox"/>	Sozietate zibila <input type="checkbox"/>	
Ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren kasuan, parte-hartzaile guztien datuak bete behar dira, deialdiko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko.						
Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Sexua	Partaidetza-portzentajea
Errepikatu behar den guztietan						

2022ko ekainaren 24a, ostirala

B) Saltegiaren datuak		
1.– Saltegiaren datuak.		
Saltegiaren izena		
Saltegiaren kokapena eta laguntzaren eskatzailearen egoitza soziala ez dira bera?		
Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>		
Helbidea (kalea):		
Zenbakia	Solairua	Aldea
Udalerria	PK	
Lurraldea		
EJZn alta emandako data:		
Saltegi bat baino gehiago dituzu?		
Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>		
Baietz erantzunez gero Zenbat?		
2.– Pertsona edo entitatea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.		
3.– Eskatzailea enpresa bat bada, mikroenpresa edo enpresa txiki gisa sailkatzeko baldintzak betetzen dituela:		
a) 50 pertsona baino gutxiagori ematea lana, eta negozio-bolumena, deialdi honen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa edo urteko balantzea ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa.		
b) 50 langile edo gehiago, 10 milioi eurotik gorako negozio-bolumena edo 10 milioi euro baino gehiagoko urteko balantzea duen enpresa batek haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea.		

2022ko ekainaren 24a, ostirala

C) Jarduera eta plantilla:

1.– 2022ko otsailaren 24a baino lehen zegoen plantillari buruzko datuak, autonomoak zein soldatapekoak barne:

Emakumeak:		Gizonak:		Langileak, guztira:	
------------	--	----------	--	---------------------	--

2.– Hau zela laguntza eskatzen den saltegiko langileen kopurua 2022ko otsailaren 24a baino lehen:

1-9 langileko saltegiak

10 langileko edo gehiagoko saltegiak

3.– Hau dela laguntza eskatzen den saltegiko langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako zenbakia:

	Langilea	Gizarte Segurantzako zk.	Autonomoa	Soldatapekoa
1			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Errepikatu behar den guztietan.

4.– Laguntzaren xede den saltegia EAEn dagoela edo, hala badagokio, jarduera EAEn garatzen duela, eta, orobat, martxan zegoela 2022ko otsailaren 24a baino lehen.

## D) Zehapenei dagokienez:

1.– Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik eta ez duela horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

2.– Ez duela inolako itzulketa- edo zehapen-prozedurarik abian, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ez haren organismo autonomoek emandakorik, izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasitakorik. Hala bada, zer prozedura den edo diren identifikatu beharko da.

3.– Ez duela zehapenik, dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izatea debekatzen dionik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen 26. artikuluari eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetara jarraitzea.

2022ko ekainaren 24a, ostirala

E) Eskabideko datuei dagokienez:

1.– Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

2.– Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan dokumentu guztiak ere; hala, dagokidan erantzukizuna neure gain hartzen dut (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

F) Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan aurreikusitako kasuan ez egotea.

G) Laguntzak berreskuratzeko agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Oharra: Emandako datuek indarrean dagoen NAN/AIZn edo identifikazio fiskaleko txartelean ageri direnen berdin-berdinak izan behar dute.

2022ko ekainaren 24a, ostirala

Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak
<p>A) Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira, 2022ko otsailaren 24a baino lehen:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.– «Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena», eta, langile autonomoen kasuan, «Lan-bizitzari buruzko txostena».</li> <li>2.– Enpresaren eratze-eskiriturak eta ondoren horietan egindako aldaketak, pertsona juridikoen kasuan.</li> <li>3.– Eratze-kontratua, ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan.</li> <li>4.– Borondatezko legezko ordezkariaren inprimaki normalizatua, ordezkariak eman nahi bada eta Ordezkarien Erregistro Elektronikoa erabili nahi ez bada.</li> <li>5.– Erantzukizunpeko adierazpena.</li> </ol>
<p>Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Merkataritza Zuzendaritzak, dagozkion eskumenak egikaritzuz, agiri hauek eskuratuko ditu bitarteko elektronikoen bidez, ez bazara espresuki horren aurka agertzen:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.– Nortasun-datuen egiaztapena (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia-DGP), pertsona fisikoaren kasuan.</li> <li>2.– Identifikazio fiskaleko agiria, pertsona juridikoen kasuan.</li> <li>3.– Egoitza fiskala (foru-ogasunak)</li> <li>4.– Ahalordetze-erregistro elektronikoa emandako ordezkariak-ahalmena.</li> <li>5.– Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren epigrafeen datuak.</li> <li>6.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzen duten ziurtagiriak.</li> <li>7.– Data zehatz batean Gizarte Segurantzaren (GSDN) alta emanda dagoen kontsultatzeko zerbitzua.</li> </ol> <p>Horren aurka agertzen bazara, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dituzu agiriak.</p>
Informazio gehigarria
<p>Datu pertsonalak egiaztatzea.</p> <p>Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu Merkataritza Zuzendaritzak, dagozkion eskumenak egikaritzuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egingo dituela frogatu ahal izateko eskabide honetan adierazi dituzun eta administrazio publikoaren eskura dauden datu pertsonalak zehatzak direla.</p>
Eskabidearen sinadura: